

# Dezepzioa

**E**rrege eta Erregina Katolikoekin oinordeko leialena den Felipe Gonzalez dezepzionatuta dago, eta ondorioz, sekulako lurrikara politiko ideologikoa eragin du espainiartasunaren defentsan: estatu kolpe zibila abiarazi du sozialistatik eta *obrerotik* deus ere ez duen alderdian. Idazkari nagusia bota du, eta ideologia nazional sozialista duen alderdia Espainia Handia eta Askearen zerbitzura jarri du politikari ohi onomatopeikoak... Rata-ta-ta-ta!

Santos presidente kolonbiar Nobel Sariduna ere dezepzionatuta omen dabil. Bakearen atzetik buru belarri ibili ostean eta estatuko aparatu mediatikoa alde izanagatik ere, gerra bukatutzat emateko bozketa plebisitariotan gaitzaile atera da. Eta, gainera, herritarrei eskaini die Bakearen Nobel Saria, kolonbiarrek Gerraren Nobel Sariaren hautua egin eta gero.

Beren burua dezepzionatuta baietz izan, Neguko Jauregia armen bidez eskuratzearren borroka armatuari ekin zioten FARCeke militantek ere, hauen akta fundazionalan boterea armen bidez eskuratzea izan baitzen, eta ez bakea lortzea armen trukean. Baina konturatu dira armetan dabilen erreferente internazionalik gabe eta nazioarteko komunitatearen onespenez barik,



Karlos Gorrindo

IDAZLEA  
@kgorrindo

Ez dakit bada, “dezepzio” egoera animikoa den, sentimendua edota emozio soila, sentsazio hutsal edo bonba nuklear suntsitzailea...

ezinezko zaiela boterea eskuratzea, eta hobe dela amaiera duina ematea sufri-menari, suizidio kolektiboa onartzea baino.

Dezepzio galanta dute, halaber, ATA sigladun taldexkako jarraitzaileek, garai bateko KAS Alternatibaren bost puntuetatik bat bera ere lortu gabe (Amnis-

tia eta Euskal Herri marxista leninista, demagun), ETAK armak bertan behera utzi izanagatik. Eta are dezepzionatua go daude Ezker Abertzalearen iritzi nagusia garai batean haiek indarrean izan zutenaren guztiz kontrako delako. *Marjinalian* bizi behar izateak sekulako dezepzioa ematen bide die.

Ilusioa piztu die, bestalde, Euskadiko Autonomiadun Jose Antonio Agirre lehendakariaren filosofia berreskuratzeko abertzale zein konstituzionalistei, haren kargu hartzearen urteurrenean. Euskal Autonomia Erkidegoa defendatuko zuen gudarostea eta Ertzaintza polizia sortu zituen, muga geografiko “mugatuak” eraiki eta diru euskalduna sortu zuen lehen lehendakari independentistaren asmoak barik, eta zeharkakotasuna eta elkarbizitzaren izenean, sekulako atsekabea eta desengainua hartuko dute abertzaleek Agirre lehendakariaren irudi neutral eta pasibotik haragoko edukian begiratua jartzen ez bazaio.

Honen guztiaren ondorioz, ez dakit bada, “dezepzio” egoera animikoa den, sentimendua edota emozio soila, sentsazio hutsal edo bonba nuklear suntsitzailea... Asepzio soil hori aditze hutsak munduko ilusio eta itxaropenak oro birrindu baino ez baititu egiten, antza. ■

